



2024KO IRAILAREN 09KO 484. ALKATETZAKO DEKRETUA

IKUSIRIK: OKT Elkartea-Barrundiako Kontsumitzaile Taldea irabazpidegabeko elkartea da, beraren lan eremua Barrundiako udalerria izanik.

GERTUA IZANIK: Aurrenean aipatutako Elkartearen helburuen artean honako hauek daude:

- Elikagaien tokiko ekoizpena eta berez ekologikoa bultzatzea.
- Ekoizpenean oinarritzen ez den nekazaritza eredua bultzatzea; aitzitik, lurrari lotutako, eta ingurunea zainduko duena, enplegua sortuko duena, lortzea.
- Tokiko produktoen kontsumo arduratsua bultzatzea, garaian garaikoak eta nekazaritza ekologikoaren oinarrietan.
- Ekoizpena egiten duten pertsonen eta kontsumitzaileen arteko lotura zuzenak bultzatzea.
- Kontsumo arduratsua bultzatuz, landaguneko bizitza mantendu, horretarako, kultura, ohiturak eta biztanlegoa zainduz.
- Landaguneaz eta nekazal sektorearekin lotutako biltzarrekin emakumearen partehartzea bultzatzea.

GERTUA IZANIK: Hortara, Elkartek honako jarduerak bultzatuko ditu:

- Eskualdeko herrietan burutuko diren ekintzetan eta jardueretan parte hartzea Elkartearen helburuen berri emanaz eta tokiko produktoak kontsumitzen diren ekintzak antolatuz.
- Ingurugiro arloan hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerak bultzatzea.
- Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerak bultzatzea.

KONTUAN HARTUZ: Barrundiako Udalak bere 2024 – 2026 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan adar hau azpimarratu du, zehazki, bere VI. Kapituluan (Dirulaguntzak ingurunearen arloko garapenerako), horrela, “OKT Elkartea-Barrundiako Kontsumitzaile Taldea” erakundearen alde dirulaguntza xedatzen da, betiere Barrundia udalerriko ingurunearen zabaltze lanak garatzeko xedez, ondorioz, turismo arloan jarduera ekonomikoa bultzatzearen.

KONTUAN HARTUZ: Aurrenekoa garatzeko, OKT elkartea-Barrundiako Kontsumitzaile Taldea erakundeak jarduera ezberdinak burutu ditu 2024 urtean.

KONTUAN HARTUZ: OKT elkartea-Barrundiako Kontsumitzaile Taldea erakundeak 2024ko urtean zehar bere jarduerak mantendu ditu, horrela, irabazpidegabeko Elkartek, gutxienez, lau lan-legepeko hitzarmenaren bidez kontratatzen ditu.

KONTUAN HARTUZ: Aurrenean aipatutako pertsona horien lan kontratazioaren zergaitia argia da; honenbestez, Taldeak berak Ozaetako



herrian duen egoitzan asteburuetan, bereziki, Barrundiako udalerrira hurbiltzen diren pertsoneri arreta ematea zen asmoa.

KONTUAN HARTUZ: Harrera emate horrek udalerrira bertaratzen diren pertsoneri tokiko informazioa zabaltzea ekarri du. Informazio hori bi arlo hauetan gauzatu delarik:

- Tokiko lehen sektoreko ekoizleen produktoak erakutsi, ezagutarazi eta saltzea.
- Barrundiako udalerria zer den azaldu eta zeintzuk diren bere ezaugarriak.
- Natur inguruneaz lotutako turismoa egonkortzea eta sakontzea.

KONTUAN HARTUZ: Susana Lopez de Ullibarri Jimenez andreak, OKT Elkartea-Barrundiako Kontsumitzaile Taldea erakundearen izenean, 2024ko abuztuaren 07ko (1457 sarrera-erregistroa) idazkiaren bidez, erakunde horrek goian aipatu diren jarduerak bultzatzeko izan dituen gastuak aurkezten ditu.

KONTUAN HARTUZ: Zuritutako zenbatekoa 11.144,37 €takoa da.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- OKT Elkartea-Barrundiako Kontsumitzaile Taldea erakundeari aurrez aipatutako lan-ildoak gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 4.000,00 eurotako dirulaguntza onartzea (2024ko Aurrekontu Orokorretako 432.481.007 partida).

BIGARRENA.- Aurrenean aipatutako dirulaguntza berehala ordaintzea (Kutxabank- 2095 3126 81 1090768721).

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau OKT ELKARTEA-BARRUNDIAKO KONTSUMITZAILE TALDEA erakundeari jakinaraztea.

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, idazkariaren aurrean, eta nik horren fede ematen dut.

ALKATEAK,

IDAZKARIAK,